

IPARRAGIRRE LITERATURAN

Juan San Martin

I. IPARRAGIRRE ETA EUSKAL HERRIA

Europako kultur mugimenduak euskal literaturan izan duten influentziaz eta horiek nolabait mugatuz agertu nituen zenbait saio *Literaturaren inguruan* (1980) deritzan liburuan. Bertako hirugarren ata-lean Iztueta jartzen nuen erromantikoen artean aintzindari, Etxahun zaharra, Chaho, Paulo Astarloa eta beste ukatu gabe. Ikus, liburuaren 68-83 orrialdeetan. Baina erromantikoen gailurrean inor jarri behar banu, hor izango luke bere toki berezia Iparragirrek.

XVIII. mendearen azkenalditik hasi zen Erromantikoen garaia. Pentsa molde klasiko motel haiek hausteaz eta idealismoetara idekiaz. Era berean, subjektibitateetara joaz. Orduan, sentipenezko eta gogozko ideiak indartu ziren.

Mugimendu honek gizarteko azpimailetarainoko eragina izango zuen; herria, populua, bultzatu zuen beraien nortasunaren alde. Horren ondorioz, oroi, Austro-hungaro inperioa erori zela eta bazter guzietan naziotasunak piztu.

Jakina, gauzak ez dira bat batean sortzen. Mugimendu bakoitzak baditu bere aintzinlariak, beste herrietan bezala gurean ere, gizon bakoitzak badakar bere mezua, ideak metatuaz, goraka indartuaz, heldutasunera arte. Honegatik, erromantikoen gailurrean, Iparragirre izan zen gure literaturan lehen aldiz Euskalerra izena zentzu politikoz hartuko zuena.

Adibidez, Larramendik (1690-1766) ere noizbait holako ideak erabili zituen baina hein batean bere abertzaletasuna Gipuzkoan mugatzen zuen, probintzia denen gainetik goraiatuz. Oihenarte (1592-1667) eta Larramendi izan ziren lehen folklore zatien biltzaile. Kantabria eta Euskaldunak ere erabiliko zituen Larramadik, Pirineko mendebaldeko he-

rrien liga edo federazio gisako elkartasuna ere proposatu zuen, probintzia mitifikatuz. Azkoitiko zalduntxoek ordea, beti haruntzago joanaz, Irurak Bat goretzi zuten. Chaho (1811-1858) berak ere, bere abertzaletasun guziz, Euskaldunak (Los Vascos), Euskaros (Vascones), baina behar bada lehenengoetarik erabiliko zuen *Pays*, euskaldunen lurraldeak aipatzean. Iztueta (1767-1845) ordea, Gipuzkoa-zaletasunez, Probintziaren alde jardun zen. Iztueta eta bere garaikoentzat, «Viva Probintzia!» dehadarra, oraingo Gora Euskadi! bezala zen. Bere lanetan inoiz ez zuen erabiltzen Euskalerrri. Euskara goratu eta edertuko zuen, baina Euskal Herriaren kontzeptu orokorra falta zitzaion. Gipuzkoaz gainerako euskaldunak hizkuntzazko anaitzat zituen, baina erakunde politiko desberdinekotzat. «Gernikako Arbola» eta Hiribarrenen *Eskaldunac* poema urte berekoak dira eta horietan agertzen da lehen aldiz Euskalerrri izenaren erabilkera hau ideen eboluzioari loturik doa eta gauzok kontutan hartu behar genituzke historian zehar euskaldunon jokabideak ezagutzeko. Gaur egungo gure itsusgatun asko ezjakintasunaren ondorioak dira. Eta aurrerantzean gauzonik egingo badugu, lehenari ere begiratu beharrean gara. Atzeak erakusten bai du aurea nola dantzatu.

Jose Maria Iparragirre (1820-1881) urretxuarra izango zen Euskalerrri bere kantetan lehen aldiz erabiliko zuena. Kanta baten titulua bera era hala dugu, «Agur, Euskalerrriari». Beraz, lehenbizikoz agertzen zaigu euskal literaturan gure herriaren zentzu orokorra, probintziaren eta eskualdeen gainetik. Bestalde, 1878an Nafarroako Asociación Euskara zeritzan elkarteari bere kanta bat eskaintzean ere, hala erabiliko zuen hirugarren bertso hartan. Beraz, garai hartan behintzat, Iparragirrentzat ez zen zalantzan jartzeko gauza, Nafarroa Euskal Herria zen ala ez.

Idea aurreratuak ziren denbora hartarako. Zalantzarik gabe, erromantiko mugimenduaren eragina zen. Idea aurreratua diot, zeren kontuan izan behar dugu, urte asko geroago, Sabino Aranak lehen abertzale alderdia sortzean «Bizkaitarra» zela, geroago Euskal Herri guzira zabalduko zuena. Baina, lehenengoz, bere ideiak ez zituen hain argi eta hasierako lanak Bizkaiaren alde soilik izan ziren.

Arestian esan bezala, Iparragirregan maiz aurkituko dugu Euskalerrri hitza, euskaldun herria orokorki begiratzean. Obian deritzanean, Ameriketatik Urretxuarrei eskainitakoetan, Becerro Bengoa, Arrese, Herran eta Manteli-ri eskainitako poesian eta abar. Honegatik, ez bakarrik Euskalerrri izena hartu, baizik maizenik erabili ere bai.

Bidenabar esan dezadan hitzak eta izenak zer nolako garrantzia duten, hauek ideeri loturik doazelako. Garaiko usteak, kezak, ideak, kontzeptuak... aztertzean premiazkoa zaigu zer nola erabili zuten jakitea. Honegatik hain zuzen, ez zait ongi iduritzen «Nere etorrera» deritzan kanta hartan «Ara España...»-ren ordean «Ara Euskalerrri» jartzerik ere,



Juan Ignacio Iztueta (1767-1845).

neurria puskatzez aparte, gezurra sartzea delako. Guri tokatzen zaigu errespetatzea, ezen gure ondokoek eskubide osoa dute lehengoena den bezala jasotzeko. Horrela, kanta berean ikus dezakegu, Hendaiatik begiratzen zuena beste Estadu batekoa zela, mugaz bestalde zegoela, eta, era berean, Estadu hori ukatu gabe, bere hirugarren bertsoan agertzen denez, «Oh, Euskalerra eder maitea» azalduko zuela. Beraz, zergatik ez errespetatu egileak berak egin zuen bezala?

Hara hemen beste adibide bat. Inoiz zalantzan jarri da ia «Gernikako Arbola» Iparragirrerena den. Gainerako doinuak kontutan harturik, argi ikusten da Iparragirrek antzerakoak ez ezik doinu hobeak ere badituela. Baina, bestalde, letraren aldetik ez dago zalantzarik, kanta horren bosgarren bertsoan, argi ta argi agertzen zaigu Euskalerra, garai hartan gure literaturan beste inork ez bezala, eta horrek ere Iparragirre erakusten du kantaren gurasotzat:

*Arbola botatzia
Dutela pentsatu
Euskalerra guzian
Denok badakigu.*

1853. urtea zen, Hiribarrenen poema argitaratu zen urte bera, erromantiko mugimenduaren eraginez euskaldunon batasunaren aldeko ideia, eta bere zabalkunde kartsua Iparragirreri zor diogu.

II. IPARRAGIRRE ERROMANTIKOA

Iparragirre ez zen bat batean kasualitatez sortu zen gizona, erromantiko mugimenduaren gurpilean sarturik zeuden Iztueta, Ulibarri, Etxahun eta Hiribarren, besteak beste. Baina, Iparragirre, gaztetxo zela, lehen karlista gerratean partaide izan zen eta Bergaran konponketa egin zutenean, bertan erabakitakoaren kontra agertu zen. Orduan, e-tsipendurik hartu zuen herbestera bidea.

Atzerrian, bizimodua nolabait atera beharrez, Carolina Duprez zeritzan emakume batekin ibili zen antzerki eta kantu ikasten. Gero, gitarra zahartxo bat lagun harturik buhame gisa.

Bere bizitzari buruz asko idatzi da, aspalditik ezer berririk guti eman bada ere. Neronek ere biografia labur bat agertu nuen *Gogoz* liburuaren 247-256 orrialdeetan, eta etzait ongi induritzen orain gauza bera berriz esaterik. Honegatik, gaurkoan, erromantikoen arteko literaturan toki berezi bat emanaz kokatu nahi nuke, bere poesiari buruzko zenbait zertzelada ondorenerako utziaz.

Herriminak itzularazi zuen eta itzultzeaz bat, 1853an, Madrid-en, Montera kaleko San Luis kafetegian «Gernikako arbola» kantatu zuen eta gero Euskal Herrian zehar. Orduan hartu zuen fama geroztik ez zen itzaliko.

Libertatearen sinbolo egingo zuen Gernikak arbola. Ez Euskal Herrikoa bakarrik, baizik mundu guziko herriena. Hori zen bere asmoa «eman da zabal zazu» agertzeaz. Ideia berriak sortarazi zituen. Lehen lehenago, Axularrengandik Etxahunera erabilia zen Euskal Herriaren izena, baina ez Iparragirrek agertuko zuen zentzu politikoz. Euskal Herriak, euskaraz mintzatzen zirenez gainera anaikide elkarte bateratua oihukatzen zuen Iparragirrek, batasunezko nortasun berezi batekin. Baina era berean, ez zuen ukatzen gainerako herriekin beharrezko genuen harreman ona. Hau zen beretzat nazioen liga edo aleanza, bere bertso batean ongi dionez:

*Gertatutzen da eguna
nazioen liga edo aleanza
da, ikusiko deguna.*

Hasiera hortan argi dago «Gertatutzen ari da» behar zuela nonbait, baina neurri gora beherak hortaratu zuen.

Sentipenak hain sakon agertze eran argi nabari da erromantikotasuna, eta jaso dudan poesi atal horren ingurua bera, lehenagoko arkadia. Iberia barne dela, goستن du. Bestalde, Euskal Herriak ez ezik euskarak berak ere tratamendu berezia du Iparragirreraren poesietan. Aizkibeli eskainitakoetz aparte, «arren, ez bedi galdu euskera» deritzanean, zeren



Joseph Augustin Chaho (1811-1858).

garbi agertu bai zigun, «Galtzen badegu galduak gera». Etsi gabe jardun zen foruen aldeko borrokan, Euskal Herriaren interesen alde; baina hala ere ez zuen azaltzen Espainiaganako gorrotorik eta bai bakearen alde deihadar.

Iparragirrereren ondokoek ezagutu zuten bere eragina. Baina, literaturan beste ekintzarik ere izan zen euskararen aldeko joera zuzpertzzen. Erromantikoen hasieran G. Humboldt izan zen bezala, mugimenduaren heldutasunean L.L. Bonaparte Printzearen lanak eta holako gizon bat gure hizkuntzaz arduratzeak berak ekarri zigun prestijioa Antoine D'Abadie eta Klaudio Otaegi izan ziren Bonaparte printzea Euskal Herrira ekartzen ahalegindu zirenak. Hala ere, olerkigintzaren alorretan ez zen sartu L.L. Bonaparte, eta honetan bai Iparragirrek ideki zuela bide berria. Bere ondotik Grazian Adema «Zaldubi» kalongeak (1828-1907), hots egin zuen: «Zazpi Euskal Herriek bat egin dezagun, guziek beti-beti gauden gu euskaldun», haritz ederraren sinboloa altxatuz.

K. Otaegi bera, Eusebio M.^a Azkue, Elizanburu, Bilintx, Dibarrart eta bestek hartu zuten urretxuarraren zenbait kutsu edo joera. Izan ere, erromantikoen giroa sendotu zuen Jose Manterolak *Cancionero vasco* eta *Euskal Erria* aldizkariarekin burutzeko.

Gaur ere bere oihua berbiztu beharra ez ote dugu? Batasun, anaitasun, euskara eta bakearen alde? Orduan zion ber-bera ez ote orain ere?

*Egia, emen ere
joan dan aspaldian
gauza onik ez degu
Euskal-errian;
oraindaino bezala
bagabiltza auzian,
emen biziko gera
beti miserian.*

Bakoitza sar bedi bere gogoetan.

Menéndez y Paleyo-k, inoiz euskaldunon alde gogo onik agertu ez zuenak, «honrada poesía vascongada» esan omen zuen Samaniego eta Trueba oroitzuz, eta esaldi hori ahotan hartuz agertu zuen Unamunok Bilbon «que era menester deshorrar a nuestra poesía y a nuestra literatura» (M. de Unamuno, *Obras completas*, tomo V, p. 554). Batez ere Antonio de Truebaren poesien aurka, gure baserritarkeriak eta «bizkaitarkeria» salatuz, 1907 eta 1908. urteetako zen ateraldi hori. Ideen funtsean ez zuen ezer berririk argitzen. Rakuk Bilbora *jiu-jitsu* ekarri zuen garaia zen eta gure Unamuno liberala aztoraturik zebilena loratzera etor ziteken abertzaletasunak itsumustuan etxezuloratuko ginduzten beldur. Raku ere aitzaki hutsa zitzaion kritika egiteko eta kritika horietan neurritz harat joaten zen inolako bereizketarik gabe. Oroj Menéndez y Pelayok «honrada poesía vascongada» eta Unamunok «que era menester des-

honrarla» esaten zutenean hemen gaztelera idatzitakoaz ari zirela. Baina testuak zuzen irakurri gabe ahoberoak bolo-bolo zabaldua besterik gertatu zen. Gure egunokarte, askoren ustez, Unamunok esana euskal poesiagatik omen. Ez da harritzekoa Amado Nervo bezalako poetak ere uste hoiri agertu zuelarik. «¡Abajo la coitadez!» eta «El jiu-jitsu en Bilbao» Gaztelaren alde agertu ziren Euskal Herriko semeak goresteko, baina denak ez ziren idazleak. Unamunok argitu ez zuena, zera zen, Gaztelaren alde ala Gaztelako erregeren alde. Eta, Foruak ez ote zeuden bitarte? Aipatzen zituen pertsonaia haien garaian bai noski. Baina hor ere ez zuen jakin bereizkuntza egokirik egiten. Itsutasuna jabe. Okerrena, zera da, ospetsu bategandik datorrena berez indartzen dela. Ondorioz, A. Nervo haruntzago joan zen, San Francisco Jabierrek ere gaztelera idatzi zuela esateaz. Guk, gutiago dakigunok, euskaraz zekien edo ez zalantzan jartzen badugu ere, gauza ziurtzat daukagu gaztelera ez zuela idatzi, bai ordea portugesez, eta zer esanik ere ez latina zein frantsesa ondo zehizkiela. Ondorioak urrutiago joan ziren Hego-Amerikak zehar, Jorge Luis Borges berak ere muturra sartzeraino, euskaldunok esne zaltzaileak baizik ez ditugula eman eta. Eta Zuzen Garate arrazoi zuzenez aritu bada ere, Nobel Sarigaiaren itzala falta zaio

Unamunoren hodeietatik libratzen den idazlea Iparragirre da. Eta arestian agertu dudan guzian kontutan hartzen baldin badugu, ez da guti gureurretuarren alde.

Unamunok, gaztaroan Alcalá de Henares-tik Bilbora Juan Jose Le-kandari Gaztela eta Bizkaiaren konparaketazko gogoetaz idazten zionean eta una berean, gure idazleen balioa ez ezik, beraien maila mugatua ere aipatzen zion Egia esan, artean Unamuno bizkaizaletasunagoz agertzen zen, edo sentitzen zen.

Hara hemen 1889ko azaroaren 18ko *El Noticiero Bilbaíno*-ren literatura orrian agertutako aburua: «La rudeza tosca de Iparragirre, la ligera gracia de Vilinch, el donaire del platero de Durango, gustarán siempre más que esas soporíferas leyenda, muy buenas, sin duda, muy bien hechas, pero que no cuadran a nuestro carácter».

III. IPARRAGIRREREN KANTAK

Ba ote da euskaldunik Iparragirreraren zerbait kantatu ez duenik? Ez dut uste. Gainera, orain hain modan den egile-kantari (cantautor) horietakoen guraso zen.

Iparragirreraren kantetan, era askotakoak dira, bere herriaren zaleztasunezkoak, herri ororen askatasun deihadarrezkoak, buhame ibilerazkoak, amoriozkoak, ardo kantak, euskaltzaleztasunezkoak eta abar.

Bere poesiagintza, gehienbat bertsolaritza eskolakoa da, baserriar legezkoa ez zelako, Xenpelarri hain egokia ez bazeritzaion ere kalekume

bertsolaria ez zenik, ezin esan; errederiarrak berak desafio famatu hartan aitortuko zuen bezala: «Eskola ona eta musika,/bertsolaria gainera...». Bere funtsean bertsolari era zuen, bertsogintza, maiz, trakets xamarra zuenarren. Bere kantetan gora-behera handiak nabari dira. Puntu aberatsik guti erabili zuen eta puntu batetik bestera neurtzean doinua ondo eroateko ohi den eten-unea bera ere beti etzuen errespetatzen. Hala ere, hoiek gaitz erdi ziren. Abots oneko gizona zen eta bertsoak musikaz ondo hornitzen zekiena.

Bere ibileraz zortziko txikian egindakoek dute bertsolari taxurarik gehien. Hoiek nonbait, publikoan maiz kantatzen zituelako, erabiliaz hobetuak zituen noski. Horietakoa dugu bere buhame bizitza eta beti bihotzean zeroan herrimina hain ongi adierazten duten «kantari euskalduna»ren lau bertso haiek. Hara hemen lehenengo biak:

*Gitarra zartxo bat da
neretzat laguna;
onela ibiltzen da
artista euskalduna;
egun batean pobre
beste batez jauna,
kantari pasatzen dut
nik beti eguna.*

*Naiz dala Italia,
orobat Frantzia,
bietan bilatu dut
anitz malizia.
Ikusten badut ere
nik mundu guzia,
beti maitatuko dut
Euskal Erria.*

Bi bertso hauek erakusten digute gizonaren irudia. Eraz eta esaldiz antzerakoa dugu Ameriketara irtetzean kantatu zuena ere. Azken bertsoaren esaldiak, ezin uka, bertsolari on baten mailakoak direla. Hara hemen, «Gazte gaztetatikan herritik kanpora...» haseraz duen horren bukaerakoa; adibidez:

*Agur nere biotzeko
amatxo maitea!
Laster etorriko naiz
kontsola zaitea.
Jaungoikoak nai badu
ni urez joatea;
ama, zertarako da
negar egitea?*

Baina, gitarra zahartxo zebilen honen gogoan zegoen gure lur maite hontan hezurak uztea. Hala gertatu ere duela ehun urte.

Esan beharrik ezta ospe handia eman zioten kantak abertzaletasunez beterikoak direla. Baina beste gai batzutan ere badu pitxi gogoangarririk. Hauen artean, amoriozkoak.

Garai hartan emakume azal zuriak maitagarriago ziren nonbait. Modaren kontuak. Baina, Iparragirrerentzat beltzeranak ere maitagarriak ziren. Hala aitortzen dute «Beltzerana» izenburutzat duten bertso politik.

Amoriozkoetan aipatuenak, «Nere maitearentzat» jarri zituenak dira, «Ume eder bat ikusi nuen/Donostiako kalean...» hasten direnak. Doinua bera ere oso polita jarri zion eta Euskal Herriko kantari taldeak amaika aldiz erabili dute. Nor ote zen kanta sortzeko etorria eman zion ume eder hori? Ezta erraz jakitekoa.

Iparragirrek kortejatzaille onaren fama zeraman eta bat baino gehiagokin izan zituen amoriozko harreman onak. Hala ere, abaraskara hurbiltzean, erlauntza guzia ez zen ezti, eta sufrikariorik ere izan zuen nonbait, «Zugana, Manuela» direlako bertsoetan ageri denez:

*Amorioz beterik
esperantza gabe,
zergatik egin zīñan
biotz onen jabe?*

Manuela hori ote zen «Ume eder bat»? Bordari zenagandik jakin nuenez, kanta hortako emakumea, Manuela Franziska Zubiaurre zen, 79 urte beteta Tolosan 1916an hila.

«Nere izarra» deritzana gutiago ezagutzen da. Gainera, luzeagoa izan zitekean, zeren bukaeraz duen hirugarren bertsoak jarraipena izan ziteken itxura du. Lehen bertsoan osatzen duen irudi ederrari nekez dagokio holako amaiera.

«Ezkongaietan» delakoa ordea, berea ote den, dudan jarriko nuke. Beste estilo bat du. Bertsolari moldeaz hobeto egina da, bertso biribilagoak ditu; baina, bestalde, Iparragirre emakumezale borrokatua zen eta, holako izateari dagokionez, emakumezkoak goresten ditu, biziki maitatzen ditu, lirioz beteriko hitz eztiminduak eskainiz. Hala dire bere amoriozko kanta guziak, hauxe ez ezik. Hemen, ezkontzearen damuz, emakumezkoak despresiatzen dira eta hori nekez zetorren Jose Mariren izatez. Baina, sarkasmoa ere gustatzen zitzaion eta, hala izanik, broma pasa egina dirudi.

Esan bezala, era askotakoak dira Iparragirrereren kantak, aberkoiak, buhame ibilerazkoak, amoriozkoak eta abar. Ardo kantetan aski zabalduak daude gure egunok arte herriak kantatu duen «Glu, glu, glu...». Kronika aldetik ere badu baliagarriak, besteak beste, «Euskalerrria eta

Como que la habéis conocido y que lo habéis querido,
elevad siempre al Todopoderoso una oración por el
eterno descanso del alma de



D.ª Manuela Francisca Zubiaurre
Viuda de D. Vicente Arregui,

Que falleció en Tolosa el día 10 de Octubre de 1916,
a la edad de 79 años,

después de recibir los Santos Sacramentos
y la bendición de Su Santidad

R. I. P.

Sus afligidos hijos M. María Dolores (Religiosa Carme-
lita en el convento de la Encarnación de Zaragoza), M. Ma-
ría Teresa (Religiosa de la Compañía en Vergara), P. Juan
(Religioso de la Compañía de Jesús) y don Fernando; hija

Amerika» deritzanak. Seme leial batek bezala kantatu zuen bere Urretxu sorterriaren alde. Baina, euskaltzale mailan ere badu bertso ederrik.

Euskara maite zuen eta hizkuntza honen alde ari zirenak gorai-
patzen zituen. Hara nola Aizkibeli eskainitako «Biba Euskara!» deritzan
bertsoetan:

*Pakean bizitzeko
gure mendietan,
euskera itz agin bear da
batzarre danetan;
ta euskaldunen izena
geroko eunkietan
famatua izango da
alde guztietan.*

Zoritxarrez, ehun urte geroago, abertzaleen batzarrak gehienetan
erdaraz mintzo dira. Ibon Sarasolak ongi zion bezala, euskaldunok,
gauzarik garrantzitsuena gerorako uzten bai dugu. Gero ordea, ez dakit
milagroaz salbatzeko esperantza edo duten; baina, gaur egun, nork si-

nesten du holako milagrorik? Mirakulorik baldin bada, hōri gure baitan dago, euskaldunei euskaraz mintzatuz. Zein aspaldikoa den Iparragirren «Arren, ez bedi galdu euskara» deitzen den bertso saila, hizkuntzaren euskarri. Ohartua zen gure urretxuarra hizkuntza gabe ez genuela nor-tasunik, «galtzen badegu... galduak gara», kartsuki azalduz.

Gaztetxo ibili zen lehen karlisten gerratean. Bergarako komenioaz ez zetorren ados eta bere kabuz atzerriratu zen. Frantzian hasi zen kantari eta Marsellesa kantatuz herriak asaldatzen zituelako desterratua izan zen. Italia, Suiza, Alemania eta Ingalaterran ibili zen buhame kantari. 1853an etorri zen Espainara eta Madrid-eko San Luis kafetegian kantatu zuen «Gernikako arbola», orain hain ezaguna eta hain hedatua duguna:

*Gernikako arbola
da bedeinkatua,
euskaldunen artean
gutziz maitatua.
Eman da zabal zazu
munduan frutua,
adoratzen zaitugu,
arbola santua.*

Geroztik esan daiteke euskaldunon kanta nagusia dela. Gainera, tendentziarik gehienekoez onartzen dutenez, anaitasunera biltzen gaitu.

Geroago anitz eztabaidatu da kanta hau beste norbaitek egina ote zen eta Iparragirrek bere ahoz kanta. Letraz eta bertso estiloz, nik neuk ez daukat dudarik berea denik. Bere beste kanta batzuetan agertzen diren klixe, errejistro, era edo molde, hor daude garbi asko. Bestalde, erabiltzen duen euskara mota ere ber bera da. Musikarena, musikologoak aztertu beharko dute, baina «Ume eder bat» eta «Hara nun diran» egiteko gauza zenak ez dut ikusten «Gernikako arbola»rena beste baten esku uzteko arrazoirik.

«Gernikako arbola» Euskal Herrian zehar kantatzeari eman zionean, hemen bai asaldatzen zituela bazterrak. Horregatik, preso sartu zuten eta Tolosan epaitu ondorean deserritua izan zen. Hortik sortu zen beste kanta ezagun hura:

*Zibilak esan dute
bizi egoki,
Tolosan bear dela
gauza au erabaki;
giltzapean sartu naute
poliki poliki,
negar egingo luke
nere amak baleki.*

Gaztaroko kantok ditu bizienak, baina Ameriketatik itzultzean, bere etorreraz Hendaian kantatu zuena ere ez zen izan txarra:

*Ara, nun diran mendi maiteak,
ara, nun diran zelaiaik,
baserri eder zuri zuriak,
iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan,
zabal zabalik begiak;
ara, España, lur oberikan
ez da Europa guztian!
O!, Euskal Erri, eder maitea,
ara emen zure semea,
bere lurrari muin ematera
beste gabe etorria.
Zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia,
beti zuretzat, il arteraino,
gorputz ta arima guzia.*

Nornahi ohartuko da naturaltasun handiz egindako bertsoak direla, eta diren bezala errespetatzea merezi dutela. Lehen bertsoan España kentzeko ohitura sartu da eta ez deritzagu ondo egina, zeren garai hartako politikak bere kontestu berezia zuen eta aldaketak ez dio onik egiten artigasunari. Norbaitek esango du, nik neuk ere ortografia aldatu dudala, baina hau berez dator aldakor, harek eta euskara idatzi finkatu bat lortu arte. Honegatik, gaur inork ez bai du idazten Iparragirre ber berak jarri zuen ortografiarekin. Baina, testu aldatzea beste gauza bat da. Oroi Iparragirre, bere etorreran Bidasoako mugaren aurrez aurre agertu zela eta ibaiaren bestalde Estatu desberdin baten lurraldeak zirela eta horren barne bere sorterriaren parte. Beraz, garai hartan, gauzarik naturalena zen era hortan kantatzea.

Iparragirrek ordurako bazekien gauzak bereizten, gaurko askok baino hobeto. «Ley Paccionada» (1841) geroztik Nafarroa bereizten ari zen eta Gipuzkoako Batzar nagusia Antzuolan biltzen zelarik, hara Jose Marik bidalitako bertsoak:

*Esan, adiskideak
orduan bezala,
Nafarroakin gaur ere
anaiak gerala;
bat da gure izarra,
bat gure bandera:
esan beti Laurak bat
izan nai degula.*

RESUMEN

El movimiento romántico trajo consigo el concepto unitario del País Vasco, introduciendo el nombre Euskalerría. Cronológicamente, la canción «Gernikako Arbola» coincide con la publicación del libro de poemas *Eskaldunac* de J.M. Hiribarren que utilizan frecuentemente Euskalerrí, en lugar de otros nombres similares de mayor uso hasta entonces, como Vasconia, Euskaros, Cantabria, etc. Para Iztueta por ejemplo, exclamar «¡Viva la Provincia!» era como gritar hoy «Gora Euskadi!». Porque antaño en España no había más que una provincia y ésta era la poseedora, la provista, de un derecho foral, un privilegio que no gozaban otros territorios, siguiendo una antigua costumbre romana en esa denominación. De manera que para Larramendi, Iztueta y otros, la provincia tenía connotación política patriótica. Lo que pasa es que a partir de la Constitución de Cádiz y al reestructurar la organización territorial se formaron las demás provincias y hoy tenemos otro concepto de lo que es una provincia, pero no hay razón histórica para despreciarla, sino todo lo contrario. Hasta navarros y vizcaínos nos han llamado provincianos y nuestros antepasados se jactaban orgullosamente de dicha denominación.

Euskalerría florece a mediados del siglo pasado bajo el impulso del romanticismo que viene a valorar las nacionalidades y las culturas populares y con ello una fuerte concienciación en favor de la lengua y literatura. Si habría que fijar alguna fecha en nuestra literatura para el comienzo del uso general del término Euskalerría, habría que señalar el año de 1853, fecha del libro de poemas de Hiribarren, y de la canción «Gernikako arbola» de Iparraguirre, donde aparece *Euskal Herria* y *Euskalerrí*, pero sin duda la canción del bardo guipuzcoano tuvo mayor difusión. En fecha ya próxima le seguiría Xenpelar. En éste, todavía aparece con alguna duda, «Gu gera iru probintzi» (Nosotros somos tres provincias) comienzan unos versos muy conocidos, donde a continuación afirmaría, «gu gera Euskalerríak» (nosotros somos los países vascos), y en otra ocasión diría, «Gipuzkoako Euskalerríetan» (en traducción literal, en los países vascos de Guipúzcoa). Pues no estaba muy seguro en su utilización. Sin embargo, Iparraguirre empleó con gran frecuencia en sus canciones, Euskalerría, siempre bajo el concepto de País Vasco.

Téngase en cuenta que, aún en el nacimiento del movimiento nacionalista vasco, antes de inventar Euskadi o Euzkadi, el primer partido creado por Sabino Arana fue «Bizkaitarra» (vizcaíno), movimiento que más tarde él mismo haría extensivo a todo el País Vasco. Razón de más para considerar a Iparraguirre entre los precursores de las ideas patrióticas que se desarrollaron con el romanticismo.

* * *

Como es sabido, Iparraguirre, expatriado por el descontento que le produjo el convenio de Vergara, marchó errante por diversos países europeos y al retornar trajo consigo ideas renovadoras. En el presente resumo el movimiento romántico en la literatura vasca, con citas a los precursores y el lugar que le corresponde al bardo urrechuarra, su personalidad y sus ideas y la repercusión en las siguientes generaciones.

Iparraguirre, partícipe y expositor de los sentimientos de su pueblo, supo calar hondo, y de su obra poética hay partes que aún mantienen vigencia y el pueblo sigue cantando con similar aspiración en lo patriótico, en la fraternidad universal, en el amor y en la defensa del vascuence. Con anhelo de paz, concordia y libertad entre los pueblos.

En el movimiento romántico vasco hay poetas de lenguaje más depurado, más ricos en matizaciones, más elegantes en los decires, pero no con el brío que supo conjugar y dar vida y belleza a las melodías como en el caso de Iparraguirre.

Unamuno, aún cuando consideraba en Iparraguirre su calidad musical superior a la poética, no descartaba la valía del bardo, porque sus ideas le resultaban renovadoras. Creía que ganó mérito por la época en que llegó, que fue un poeta de ocasión. Poeta con más sentido que imaginación, es verdad. Pero para otros también hubo la misma oportunidad, y, sin embargo, Iparraguirre fue único. Por eso aquella estrofa de

*Eman da zabal zazu
Munduan frutua:
Adoratzen zaitugu,
Arbola santua.*

Le haría exclamar a Don Miguel: «Extiende y propaga tu fruto por el mundo; nosotros te adoramos, árbol santo». «¡Por el mundo, señores, por el mundo quería que se extendiera el fruto del árbol de libertad! ¡Luego dirán que somos exclusivistas!». (M. de Unamuno, *Obras completas*, tomo VI, p. 208).

Justamente no era ésta la poesía vascongada la que era menester deshonrarla, como algunos han pretendido. En aquella ocasión que quiso mostrar el valor literario de José María Salaverría con el artículo titulado «Otro escritor vasco», la intención era muy otra, al abrir el escrito con aquel hiriente párrafo: «En cierta ocasión, Menéndez y Pelayo, que nunca ha sentido predilección por los vascos, habló de la «honrada poesía vascongada», recordando a Samaniego y a Trueba, y yo, comentando esa frase, cuyo sentido íntimo creo que no se me escapa, dije en Bilbao que era menester deshonrar a nuestra poesía y a nuestra literatura». Y Antonio Trueba se convierte en el principal blanco de sus iras, hasta aborrecerle, pues «En derredor de la estatua de Antón, el de los Cantares, aquel espíritu sencillo y bueno que tanto daño nos hizo con sus aldeanitos

CONVENIO

Celebrado entre el Capitan General D. Baldomero Espartero, y el Teniente General D. Rafael Maroto.

Artículo 1.º El Capitan general D. Baldomero Espartero, recomendará con interés al Gobierno el cumplimiento de su oferta, de comprometerse formalmente á proponer á las Córtes la concesion ó modificacion de los fueros.

Art. 2.º Serán reconocidos los empleos, grados y condecoraciones de los generales, gefes, oficiales y demas individuos dependientes del ejército del mando del Teniente general D. Rafael Maroto; quien presentará las relaciones, con expresion de las armas á que pertenecan, quedando en libertad de continuar sirviendo, defendiendo la Constitucion de 1837, el Trono de ISABEL 2.ª y la Regencia de su Augusta Madre; ó bien de retirarse á sus casas los que no quieran seguir con las armas en la mano.

Art. 3.º Los que adopten el primer caso de continuar sirviendo, tendrán colocacion en los cuerpos del ejército, ya de efectivos, ya de supernumerarios, segun el órden que ocupen en la escala de las inspecciones, á cuya arma correspondan.

Art. 4.º Los que prefirieran retirarse á sus casas, siendo generales y brigadieres, obtendrán su cuartel para donde lo pidan; con el sueldo que por reglamento les corresponda: los gefes y oficiales obtendrán licencia ilimitada; ó se retiro segun reglamento. Si alguno de estas clases quisiese licencia temporal; la solicitará por el conducto del inspector de su arma respectiva; y le será concedida, sin aceptarse esta licencia para el extranjero; y en este caso hecha la solicitud por el conducto del Capitan general D. Baldomero Espartero, este les dará el pasaporte correspondiente; al mismo tiempo que se curso á las solicitudes, recomendando la aprobacion de S. M.

Art. 5.º Los que pidan la licencia temporal para el extranjero, como no pueden percibir sus sueldos hasta el regreso, segun Reales Órdenes, el Capitan general D. Baldomero Espartero, les facilitará las debidas pagas en virtud de las facultades que le están conferidas, incluyendose en este artículo todas las clases, desde general hasta subteniente inclusive.

Art. 6.º Los artículos precedentes comprenden á todos los empleados del ejército, haciendose estension á los empleados civiles que se presenten á los doce dias de ratificado este convenio.

Art. 7.º Si las divisiones Navarras y Alavesa, se prestasen en la misma forma que las divisiones Castellana, Vizcaina y Guipuzcoana, disfrutarán de las concesiones que se expresan en los artículos precedentes.

Art. 8.º Se pondrán á disposicion del Capitan general D. Baldomero Espartero, los parques de artilleria, maestranza, depositos de armas, de vestuarios y de viveres, que estén bajo la dominacion del Teniente general D. Rafael Maroto.

Art. 9.º Los prisioneros pertenecientes á los cuerpos de las provincias de Vizcaya, y Guipuzcoa, y los de los cuerpos de la division Castellana que se conformen en un todo con los artículos del presente convenio quedarán en libertad; disfrutando de las ventajas que en el mismo se expresan para los demas. Los que no se convinieren sufrirán la suerte de prisioneros.

Art. 10. El Capitan general D. Baldomero Espartero, hará presente al Gobierno, para que este lo haga á las Córtes, la consideracion que se merecen las viudas y huérfanos de los que han muerto en la presente guerra, correspondientes á los cuerpos á quienes comprende este convenio.

Ratificado este convenio en el Cuartel general de Vergara á 31 de Agosto de 1839.

El Duque de la Victoria

Rafael Maroto

de nacimiento de cartón y sus *chocolatadas*», (M. de Unamuno, *Obras completas*, tomo V, págs. 554 y 563). Extralimitándose en lo lingüístico, con achaques contra un poeta que nunca escribió en vascuence.

Anteriormente, en su conferencia «Espíritu de la raza», de entre los poetas vascos haría alguna excepción con los euskéricos y de entre los mismos en la figura de Iparraguirre, en un gracioso comentario de calificaciones y descalificaciones, del tenor siguiente: «Decía un crítico español que en España tenemos dos poetas y medio, los poetas Núñez de Arce y Campoamor; el medio poeta, Manuel del Palacio. También nosotros podemos decir que tenemos dos poetas y medio: los poetas Iparraguirre y Vilinch; el medio poeta, uno que vive y por eso no le nombro». (M. de Unamuno, *Obras completas*, tomo VI, pág. 207).

* * *

Iparraguirre fue un precursor de lo que hoy se viene a llamar cantautor. Siendo a la vez un gran innovador de música y letra. Su hermosa voz y su grave contenido, con sentidas canciones patrióticas —circunscribiendo al mismo tiempo la libertad y fraternidad entre todos los pueblos del mundo—, son las que le dieron fama al bardo vascongado.

Pero él, también desarrolló otros temas. Su repertorio temático es muy variado y las composiciones de su vida errante son magníficas estampas autobiográficas.

Utilizó el estilo del bersolarismo. No con la perfección de dicha modalidad tradicional, pero sí con briosa expresividad e ideas renovadoras, tocando los problemas candentes que afectaban directamente a la problemática del pueblo enardecido por el riesgo de la abolición de los fueros.

En esta primera parte recojo, como ejemplo, estrofas o retazos del buen decir poético de su bohemia y de sus amoríos.

En Iparraguirre no faltan repertorios de canciones báquicas como «Glu, glu, ...» y «Errukarria», asimismo, destacan otras en defensa del idioma euskaro; pero, queda dicho, que sobresalen las patrióticas. En las mismas ahondó con naturalidad el fondo de la cuestión a debate. Por esto hacía decir a Antonio Trueba: «Estas canciones gustan al que las siente, no al que las oye».

Tras recorrer con su vida bohemia algunos países europeos, en exilio voluntario, por disconformidad con aquel abrazo entre Eñartero y Maroto, regresó para cantar el «Gernikako arbola» (1853), primero en Madrid y luego por las plazas del País Vasco, donde soliviantó a sus

habitantes y el capitán general ordenó su destierro. De ahí su «Nere amak baleki» (Si lo supiera mi madre...). A su vuelta se quiso casar con Angela Querejeta, pero tuvo sus dificultades por informes sobre un casamiento anterior, durante su exilio voluntario, y en su empeño de contraer matrimonio con Angela, emigró a Buenos Aires, para pasar más tarde a Uruguay. Al dictarse la ley abolicionista de los fueros, en 1876, sus paisanos reclamaron su retorno. Es cuando cantó el «Ara nun diran...». Sus canciones aún son cantadas por el pueblo que no alcanzó sus aspiraciones de libertad y autogobierno que le ofrecían los fueros.